

In Memoriam. Joxemartin Apalategi (1949-2006)

Joxemartin Apalategi ataurdarra, Euskal Herriko Unibertsitatean antropologia irakasle zena, berrogeita hamasei urte bete barik, hil zen 2006ko otsailaren 8an. Hurrengo egunean bere hileta meza Ataungo San Gregorio elizan ospatu zen. Bere iloba Ur Apalategik euren sendian esanguratsua den "Makilakixki" herri-ipuina irakurri zuen. Ekitaldia benetan hunkigarria izan zen. Bertara azaldu ginen Etniker Taldeetako hainbat lagun gure adiskide zenari agur egin eta bere alde otoitz egiten.

Egia esan Joxemartin ez zen Etniker Taldekoa izan; baina benetan miresten zuen Euskal Herriko Atlas Etnografikoaren egitasmoan Taldea egiten ari den etnografia ikerketa paregabea.

Txikitatik eta bere bizitzan zehar On Jose Migelen obrari eta pertsonari zeharo lotuta egon zen. Herrikide eta auzokide izan ziren biok eta hortik hurbiltasun estuagoa edukitzeko aukera.

Berak euskaratu zuen guk Etnikerkoek egunean eguneko ikergailu bezala erabiltzen dugun "Guía para una encuesta etnográfica". Itzulpen hori On Jose Migelen obra osoaren XXI. tomoan argitaratu zen "Galdeketa etnografiko baterako gidaliburua" izenaz (1981). Berak sortutako Antropologiaren Euskal bilduman, 1985ean, gida liburutxo bezala berriro inprimatu zuen. Gida hori jarraituz, unibertsitateko bere ikasleekin elikadurari buruzko 13 azterketa egin zituen Bizkaia eta Gipuzkoako beste horrenbeste herritan.

Datu-biltzaile amorratua izan zen Joxemartin. Garai bateko etnografoen modura, landa-laneko ohiko tresna, koadernotxoa, ibiltzen zuen beti eskura. Bertan jasotzen zituen interesgarri iruditzen zitzaizkion xehetasunak. Zehatza zen datuak hartzeko garaian, eta gainera xehetasunik txikienei ere erreparatzen zien. Barandiaranek hasitako bideari ekin zion, etnografo klasikoaren metodoa modernoarekin uztartuz.

Behin eta berriro esaten zuen, antropologoa baino etnografoa zela eta bere eginkizun nagusia adineko jendearen ahotik datuak jasotzea zela. Eta hori egin zuen azkeneko urteetan: datuak bildu eta bildu, berak esaten zuen moduan zaharrak joaten ari dira eta.

Mutiko eta gaztetxo zela Joxemartinek Donostiako seminarioan egin zituen humanitate eta filosofia ikasketak 1961-1969 urteetan. Gero Parisen Soziologiako lizentzia egin zuen. Hurrengo urteak Ondarroako Ikastolan eman zituen euskara eta natur zientziak irakasten.

Berriro bueltatu zen Parisera eta bertako Institute Catholiquen Filosofian graduatu zen eta aldi berean École des Hautes Études deritzon erakundean ikasi zuen. 1981. urtean Euskal Herriko Unibertsitatean sartu zen irakasle eta handik hiru urtera bere doktore tesia aurkeztu zuen: "Antropologia berria. Ahozko herri produkzioa". On Jose Migel Barandiaranen sarrera eta Julio Caro Barojaren hitzurrez argitaratu zen 1985. urtean. Biekin harreman estu-estua izan zuen eta.

Gizon gazte eta sasoizko joan zitzaigun gure adiskidea. Har dezala Etniker taldekoen begirunezko goratzarrea.

Ander Manterola
Etniker-Euskalerrria